



Akta: 1/2018

2018ko urtarrilaren 18an, 12:10ean, Gasteizen bilera egin du **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkurak**, aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau joratu da:

1. Ebatzita dauden espedienteen jarraipena.
2. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
3. Ebatzi gabe dauden espedienteen egoera.
4. Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeko kideen kalte-ordainei buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiaren tramitazioaren egoera.
5. Eskerak eta galderak.

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

BATZORDEKIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

IDAZKARIA:

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

1.a.- Batzordeak eratu zenetik emandako ebazpenak betetzeari buruzko jarraipena

- 2/2017 ebazpena (espedientea: 2017/000009). Erreklamatzailerak beste idazki bat aurkeztu du, duela gutxi erantzun zaion eskaria berriro egiteko. Gainera, ez dago beste argudiorik, erantzun hartan azalduetakoz beste. Beraz, berriro ez erantzutea erabaki da, idazki horri alderdi guztietan arreta egin zaiolako.

- 21/2017 ebazpena (espedientea: 2017/000069). Zera erabaki da: erreklamatzailerari bidaltzea berak batzorde honi eskatzen dion dokumentazioa, eta horrekin batera bidaltzea Udalaren erantzuna, batzorde honetan 2018ko urtarrilaren 9ko sarrera-data duen informazio-eskaria betetzekoa.

- 8/2017 ebazpena. Zera erabaki da: Udalaren erantzuna, batzorde honetan 2018ko urtarrilaren 11ko sarrera-data duen informazio-eskaria betetzekoa, bidaltzea.

2.a.- 2017/000076 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak proposamena aurkeztu duen batzordekideari eman dio hitza; proposamena aurretik bidali da, batzordeko kideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 23/2017 Ebazpen gisa.



3.a.- 2017/000078 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak proposamena aurkeztu duen kideari eman dio hitza; proposamena aurretik bidali da, batzordeko kideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 25/2017 Ebazpen gisa.

4.a.- 2017/000081 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak proposamena aurkeztu duen kideari eman dio hitza; proposamena aurretik bidali da, batzordeko kideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 27/2017 Ebazpen gisa.

5.a.- 2017/000085 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak proposamena aurkeztu duen kideari eman dio hitza; proposamena aurretik bidali da, batzordeko kideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 30/2017 Ebazpen gisa.

6.a.- Ebatzi gabe dauden espedienteen egoera

- 2017/000077 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, 2018ko urtarrilaren 9an erreklamatzailerari Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio zuzendariak emandako informazioaren berri eman zaio, informazio hori jaso duela eta edukiarekin ados dagoela baieztatu du.
- 2017/000080 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, erreklamatzailerak konpondu egin du batzorde honek eskatutako dokumentazioa; hala ere, akats batengatik, hala egitean informazio publikoa eskatzeko beste espediente bat sortu du, 2017/000088 zenbakikoa. Erreklamazioaren berri eman zaio Udalari, eta entzunaldirako epe bat eman zaio, gaiari buruzko informazioa eman dezan eta ebazteko garrantzitsua den dokumentazioa ekar dezan.
- 2017/000081 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, erreklamatzailerak atzera egiteko idazkia aurkeztu du, 2017/000080 espedientearen erreklamazio berbera delako.
- 2017/000082 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, ez da erreklamazioa; aitzitik, akats batengatik Zuzeneanek sisteman alta eman dio. Berrito Zuzeneanera bideratu da.



- 2017/000083 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, konpontzeko errekerimenduari ez zaio jaramon egin lehenengo jakinarazpen elektronikoan. Errekerimendu hori erreklamatzaileri edozein bitarteko erabiliz jakinarazteko, geroago posta elektronikoko mezu bat bidali zaio, eta berriro erantsi zaio. Zera erabaki da: emandako epea igarotakoan errekerimendua bete ez bada, ebatziko da eta erreklamatzailak atzera egin duela ulertuko da; hala, ebazpen-proposamena ez da eraman beharko batzordearen hurrengo osoko bilkurara.
- 2017/000086 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, erreklamatzailak konpontzeko idazkia bidali du, baina aipatzen duen dokumentazioa eranstea ahaztu zaio; horregatik, berriro ere eskatu diote.
- 2017/000087 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak jakinarazi duenez, erreklamazioaren berri eman zaio Udalari, eta entzunaldirako epe bat eman zaio, gaiari buruzko informazioa eman dezan eta ebazteko garrantzitsua den dokumentazioa ekar dezan.
- 2017/000088 espedientea. Erreklamazioa tramitatzen ari den batzordekideak zera jakinarazi du: esan denez, espediente hori ez da erreklamazioa, baizik eta 2017/000080 espedientearen konponketa, espediente hori informazio-eskaera gisa sortu baita erreklamatzailaren hutsegite batengatik. Dokumentu hori espediente horretan kontuan hartu da jada. Informazioa eskatzeko espediente hori itxi behar dela erabaki da.

7.a.- Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeko kideen kalte-ordainei buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiaren tramitazioaren egoera.

Batzordeburuak azaldu du zein egoeratan dagoen konpentsazio ekonomikoa arautzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiaren tramitazioa; konpentsazio ekonomiko hori, hain zuzen ere, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzkoaren 2.2. artikuluan aipatzen da. Agerian jarri denez, erabaki hori onesteko urte bat eta lau hilabeteko atzerapena daramate, eta horrek zera esan nahi du: orain arte ez dira ordaindu jardueran aritzeko erabilitako denboraren eta dedikazioaren kontzeptuan nahiz aztertutako gaien kopuruarengatik egokituko liratekeen kopuruak.

7.a.- Eskaerak eta galderak.

Ez da eskaerarik egin, ezta galderarik ere. Beraz, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du 13:48an.



Idazkaria

María Soledad Gutiérrez Rodríguez

Batzordekidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal